

# ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 5a / 693. zenbakia



## GIZARTE SEXISTA, JOSTAILU SEXISTAK

EMAKUME TXOKOAK JOLAS ETA JOSTAILU SEXISTEN  
GAINEKO JARDUNALDIAK ANTOLATU DITU

KIROLA: MONDRA ETA ZARAUTZ, NOR BAINO NOR GEHIAGO/7 • GAZTEAK: JOSTAILU TRUKAKETA AZOKA/9



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 5**  
Ruiz. Maala 31 ..... 943 79 14 09
- ZAPATUA, 6**  
Zabala. Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30
- DOMEKA, 7**  
Azkoaga. Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 8**  
Azkoaga. Iturriotz 17 ..... 943 79 79 99
- MARTITZENA, 9**  
Corcuera. M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 10**  
Irizar. Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- EGUENA, 11**  
Amezua. Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 12**  
Español. Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. .... 943 03 53 00  
Iguualatorioa. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. .... 943 79 39 00  
Emakumeak. .... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea. .... 943 79 90 11

- LARRIALDIK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelheenetik egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelheenetik egubakoitzera. .... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzaileak ..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44
- ERTZAINZTA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. .... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa. .... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA. .... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza. .... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. .... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (elebiduna) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 meza nagusia (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	<b>San Isidro eliza</b> Zapatua 20:00 (euskaraz)
	<b>Santa Teresa eliza</b> Domeka 12:30 (elebiduna)

**OHARRAK**

**ABAROAN, MAHAI-JOKOAK**  
Abaroa erretiratuen elkarteak mahai-jokoen txapelketa egingo du azaroaren 25ean. Interesatuak azaroaren 10etik 12ra bitartean eman beharko dute izena.

**ABAROAKOAK, IRUÑERA**  
Azaroaren 18an, Abaroa elkarteak Iruñera txangoa egingo dute. Interesatuak egunean, hilaren 11n, eman beharko dute izena.

**FILMAK, LUDOTEKAN**  
Datorren egubakoitzean, hilaren 12an, Okendoko ludotekako erabiltzaileek film emanaldia izango dute. 17:00etarako egin dute hitzordua.

**GRAFITI IKASTAROA**  
Txatxilipurdiko Gazte Sailak grafiti ikastaroa antolatu du 12 eta 17 urte bitarteko arrasatearrendako. Abenduaren 29ra arte egingo dute, eguaztenero. Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena, eta 20 euro ordaindu beharko dira. Plazak mugatuak dira.

**TXIKILANDIARAKO BEGIRALEAK**  
Gabonetan Txatxilipurdik egingo duen Txikilandia jolasparke erraldoirako begiraleak behar dituzte.

**AEDrenAGENDA**

**ARRASATE LEHIAKETETAN ESKU HARTZEKO EPEA ZABALIK**  
AEDk urtero antolatzen ditu Arrasate Lehiaketak. 2005eko otsailera arte aurkez daitezke lehiaketarako lanak.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Herriko musika taldeendako laguntzak**

Udaleko Gazteria Sailak erabaki zuen maketa edo LPa grabatzeko musika taldeei dirulaguntzak ematea. %50 ordaintzera konprometitu zen, kostua 80.000 pezetatik gorakoa ez bazen. Heriotza, DDDP, Child Abuse, Malaña, SS-77, Iskanbila eta Necrosis taldeek eskatu zuten, besteak beste.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Iguindu"**



Nazkatu.  
— Iguinduta nago tabernaik taberna ibiltzen.

JON IRAEGI

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**

**DANBAKA** )))))))  
DEBAGOIEN EKO I. MUSIKA LEHIAKETA

**Arrasate Irratian:**  
**MATXURA (Elgeta-Soraluze):**  
zapatuan: 16.00  
martitzenean: 20.00

**AMONAL (Oñati):**  
domekan: 16.00  
eguaztenean: 20.00

**Danbaka lehiaketako kontzertuak irrastian entzungai: Matxura eta Amonal**

Aurreko astean iragarri genizuen moduan, Arrasate Irratian ere baduzue Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketako kontzertuak entzuteko bidea. Urriaren 22an Elgetako Espaloia antzokian zuzenean izan genituen bi taldeen kontzertuak eskainiko dizkizuegu asteburu honetan ere bai. Horrela, bada, zapatuan, Elgeta-Soraluzeko Matxura taldearen txanda izango da. Kontzertuarekin batera, Amagoia Lasagabaster GOITBko lankideak taldekideekin izanda-

ko solasaldia ere berreskuratuko dugu. Bestalde, martitzenean ere Matxura taldekoak izango dira 107.7an. Domekan eta eguaztenean, berriz, Oñatiko Amonal taldearen doinuekin gozatzeko hitzordua izango da.

**ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN**  
Horrez gain, zapatuan eta domekan, 10:00etan, asteroko elkarrizketa bilduma izango duzue. Aste honetan, besteak beste, AEBetako hauteskunde gainera iritziak eskainiko dizkizuegu.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguaztena, 27	<b>7°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Zapatua, 30	<b>20°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>62,2 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 27	16°C 7°C 0,6 l/m²
Eguena, 28	18°C 8°C 0,2 l/m²
Egubakoitza, 29	17°C 8°C - l/m²
Zapatua, 30	20°C 8°C - l/m²
Domeka, 31	16°C 8°C 45,7 l/m²
Astelehena, 1	12°C 9°C 15,7 l/m²
Martitzena, 2	17°C 9°C - l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 **Asteko gainbegiratu**: AEBeko hauteskunde gainean: Miren Gabantxo, HUHEZIKO irakaslea, Gotzon Garate, idazlea; Araitz Garaita, 'Juul, iraintzea hitzez jotzea da' erakusketaren gainean...
- 16:00 **Danbaka**: Matxura.
- DOMEKA**  
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- 16:00 **Danbaka**: Amonal.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landu).  
Elkarriketak.  
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.
- 12:20 **Zorion agurren tartea**.
- 12:30 **Izarren ordua**: abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia**.
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.



## KALEINKESTA/ Ospitala haunditu ala barrixe egin biherko leukie? Zerbitzu ona emuten daue?



**AZUCENA VIGARA**  
Langillie



**PABLO VELASCO**  
Langillie



**MARI JOSE DOMINGOS**  
Langillie



**MARIBEL SANCHEZ**  
Langillie



**MARIBEL GOÑI**  
Langillie



**RAMON APERRIBAI**  
Erretiraue

Oin dala gutxi haunditu euen eta uste badaue gehixau haundiketako premiñie dauela, barrixe egin biherko leukie. Gutxittan jueten naz eta ez dakit ze zerbitzu emuten dauen.

Neu Lagun Aron nau, eta danok ospitalera bielketan gauenien, oso txiki geratu biher da. Horregaittik, onena izengo litzake barrixe egittie, dauena barrittu biherrien.

Oena izengo litzake ospital barrixe egittie, baiñe leku aproposa topetie gatza izen biher da. Dauen lekuen ondo dauela uste dot, baiñe argi dau txiki geratu biher dala.

Premiñien arabera ikusi biherko litzake. Premiña danak bete ezkeru, haunditute nahikue. Bestela, barrixe egin biherko daue. Nik pentsetan dot ospitalien zerbitzu ona emuten dauela.

Barrixe egingo neuke. Herrixek haundiketetan dabitz, eta horregaittik zerbitzu haundixauek biherdittugu. UVIXe eta mediko espezialista gehixau ipiñiko nittuke.

Ospitalien diru larrei gastatu daue, eta ez dakit ze esan. Ikusi egin biher betirako zeozer egitten dauen. Erdialdetik gertuau egon biherko leukie, danek ez daukie-eta kotxie.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK AHATEEN URA ZIKIN** Irakurle batek aditzera eman digu Santa Barbarako ahateen ura zikin dagoela. Orain dela urte batzuk ere kexa bera heldu zitzaigun, eta horren berri eman genuen. Orduan, berehala garbitu zuten urmaela. Irakurle horrek eskatu digu aditzera emateko, herritar askok oso gustuko dutelako inguru hori, eta urak itxura txarra ematen duelako.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

KIROLA /6

KULTURA /9

### Ezinduen sexualitea

Atzegik ezindu psikikoen sexualitatearen gaineko gida kaleratu du, gurasoek erabil dezaten.

### Getxoko taldea Garagartzan

Arrasate Errugbi Taldeak Getxoko taldearen kontra jokatu du zapatu arratsaldean, Garagartzan.

### Bi kontzertu gaztetxean

Gaur, egubakoitz, eta bihar, kontzertuak egingo dituzte gaztetxean, 22:30ean.

## ASTEKO DATUA

# 11.700

### EURO KOSTATUKO DA MUSIKA ETXeko PROIEKTUA IDAZTEA

Kudeatu SL enpresak idatziko ditu Industria Museoaren eta Musika Etxeko proiektuak; biak hala biak Saiolango eraikinean egingo dituzte. Horren ostean, lanak esleituko dituzte.

## BESTEKEKESANA

“

Ez naiz AEBetatik joan. Orain bi lekutan bizi naiz, Euskal Herrian eta AEBetan; saiatzen naiz bi lekuetako

familia eta lagunak uztartzen. AEBetan egin ditudan 35 urteetan gauza asko lortu ditut, baina Euskal Herriko lagunak eta herri honek bizi duen egoera gogoan izan dut uneoro, eta nik neuk ekarpena egitea erabaki dut. (...) Gaur egun MUKo Informatika sailean lanean nabil eskolak ematen (...). Askok harritu nau hemengo irakasleek duten maila altuak. (...) Aitak gerran borrokatu zuen eta horren ostean Amerikara emigratu egin genuen, gurasoak eta bi anaiok. (...) AEBek duten txarrena da inguru batzuetan dagoen arrazakeria, eskuma kristauaren fundamentalismoa eta gobernuetako batzuek erabili duten abertzaletasun faltsua”

**AMBROSIO GOIKOETXEA**  
‘EL DIARIO VASCO’/04-11-02

## HERRITARREN BERBAK/ Asier Zubizarreta



### Sakona eta taxuzkoa

**E**rlorjuen ordubeteko atzeratzeak negu beltzari atea zabalduko dion urriko domeka gauetz, ordenagailu aurrean jarri naiz, ilusioz blai, Estatu Batuetako hauteskundeei buruzko azterketa sakon eta taxuzkoa egiteko asmoz.

Kondenatuta nago baina hasi aurretik inolako interesik gabeko artikulua idaztera, artikulua zendua, zuk egubakoitzeko *Goienkaria* esku artean duzun honetan ondotox jakingo duzulako nor izan den bozketan irabazlea, hurrengo lau urteetan Etxe Zuriko maizterra, Floridan kontatzen ikasi badute behinik behin; nik berriz ezin hori inolaz ere jakin, orain naizena baino sei egun gazteagoa naizenez orain. Kirol-egunkarietan ere partidu aurretiaz idatzitakoak arbitroak txilibitua ahoan sartu orduko kadukatzan dira, eta denok dakigu nork jaten dituen etxean jogurt kadukatutakoak, amamak. Zu zaitut etorkizuneko, ni

nauzu iraganeko. Baina ez al da orain milaka urte amatatu zen izarra ere ederto ikusten azaroko zeru ilunean? Eta inori ez diot protestarik entzun horregatik. Hara defuntua lasai asko dir-dir zeure begien aurrean, Domusantu.

Tira, nahikoa diagu,

filosofatu bezate marfilezko dorrean filosofoek eta mozkorrek tabernan, ni etorri naiz hona hauteskundeei buruzko azterketa sakon eta taxuzkoa egitera, burutsua, zabala, Oregon-en hasi eta Connecticut-erainokoa... Eztu

gutxiago merezi diren demokrazion aitatik.

Ostia, oraintxe parrokiako kanpaiak, lehenengo laurdenak, gero hiru, goibel, bata bestearen atzean; etxeko erlojuak atzeratzeari ekin beharko diot ordenadorea amatuta. En fin, badakit oker hasten dena okerrago amaitzen dela, haurra hilda jai da, latza, baina esanaren gainean zeunden, hau izan da artikulua abortoa, abortikulua.

“Ni etorri naiz hona hauteskundeei buruzko azterketa sakon eta taxuzkoa egitera”

**Arrasate**  
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ion Berezibar  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martinez  
Imanol Elortza  
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



## ASTEABIHITZETAN

## Ekin Emakumeak Elkartearen ekimenak

Ekin Emakumeak Elkartea oinarrizko jostintza tailerra antolatu du. Azaroaren 29an eta abenduaren 1ean, 2an eta 9an izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara bitartean. 10-12 laguneko taldean josteko lan txikiak norberak egiten ikasteko izango da: botoiak eta kremailerak zelan jarri, barrenak zelan hartu, errepassoak zelan egin... Horrez gain, azaroaren 20an, Arabara irteera egingo dute elkartekoek. Egun osoko txangoa izango da: besteak beste, La Hoyan eta Errioxako upeldegi baten geldiuneak egingo dituzte. Interesa duenak honako telefono zenbakira deitu beharko du: 943 77 00 65.


## MUK hitzarmena Eusko Legebiltzarrarekin

Mondragon Unibertsitateak eta Eusko Legebiltzarrak hitzarmena sinatu dute, nazioarteko demokrazia elektronikari buruzko ikerkuntza egitasmoa abian jartzeko.

Juan Mari Atutxak, Eusko Legebiltzarreko presidentea, eta Inaxio Oliverik, MUKo errektorea, sinatu dute *e-demokrazia* egitasmoa bultzatzen duen hitzarmena. Hitzarmen horrek Nazio Batuen Erakundeko agentzien laguntza izango du. Hitzarmenak 60 mila euroko dirulaguntza izango du.

## 'Bullying'-aren gaineko erakusketa

Arrasateko Udalak azken asteotan horren ezagun egin den *bullying*-aren gaineko arazoa landu gura izan du erakusketa baten bitartez. Gai hori joan den irailean Jokin Zeberio gaztearen heriotzarekin batera egin zen ezagun, baina Udalak argitu duenez, gertaera tamalgarri hura izan baino askoz lehenago zebiltzan erakusketa hori egin guran, arazoa ez da eta berria. Erakusketa Gregie de Maeyer idazlearen liburuan dago oinarrituta. Martitzenean ireki zuten erakusketa, Monterronen, eta azaroaren 12ra arte egongo da ikusgai.



## Ikerlanek 30 urte egin ditu

Ikerlan sortu zutenetik 30 urte igaro dira, eta urteurren hori ospatzen dabilta egunotan, baita lanak aurkezten ere. Hala, oraingoan Ingurumen Adimena izeneko arloa aurkeztu du Ikerlanek; egunerokoan zuzenean aplikagarriak diren inbertsio eta ikerketak egiten dituzte arlo horretan. Argazkia: Arrasate Irudiak liburua.



## USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

## Mamuek guri barre

Aurreko asteburua, askok gustura gozatu agenuena, Domu Santu egunak luzatu zuen. Hemen, Euskal Herrian egun hori modu tristeagoan bizi dugu. AEBetan, berriz, gau horri Halloween izena jarri diote eta beste modu batera moldatu dute. Irlandarrek, hildakoen irudiaz baliatuta, broma eta adar-jotzea uzartzen dituen jaia asmatu zuten

eta AEBetan oso ezagun bilakatu da. Gaur egun, globalizazioaren erruz, ohitura, moda edo dena delako horiek asko zabaldu dira. Horregatik, esaterako, inguruko merkataritza-gune batzuetan kalabazak salgai ikusi ditugu, eta hemengo pub eta diskoteka askotan halako jaiez baliatzen dira.

Batzuk haserretu egiten dira hemengo jaia ez delako,

baina guk ez diogu horri kritikarik egingo. Bakoitzak ikusiko du zer eta zelan ospatzen duen. Hala ere, egia da beste behin AEBetatik datozen usadio eta ohiturei men egiten diegula.

AEBetatik zein mamu ekarriko diguten zain egoten gara Halloween usadioa hartzen dugunean. Orain ere horrela gaude, munduko estatu boteretsuena zein mamuk gidatuko duen beldur. Ala barre egiteko kontua zen?

## ASTEKOIRUDIA



## LURRALDE ANTOLAKETA EREDUEN ALDAKETA BULTZATZEKO JARDUNALDIAK

Astean AHT Gelditu! Elkarlanak jardunaldiak egin ditu Arrasaten, Monterron jauregian, hain justu. Hainbat berbalde eta mahai-inguru egin dituzte. Antolatzaileek esan dutenez, horren helburua da gaur egungo gizarte, ekonomia eta lurralde antolaketa ereduaren aldaketa bultzatzeko eztabaida foro

zabal eta parte-hartzailea sortzea. Besteak beste, honako gaiak aztertu dituzte astean: kontsumoa eta ongizatea, mugikortasuna eta lurralde antolaketa. Horrez gain, Euskal Herrian egin gura dituzten hainbat azpiegituraren aurkako taldeek ere euren iritzia eman dituzte. /ARRASATE PRESS

**BASATI**  
**TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
943 711768

ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK


Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE





## ARRASATE SASKIBALOI TALDEKO BI HARRIBITXI, TXAPELDUN

**A**rgazkian azaltzen diren bi gazte horiek Aitor Zeziaga eta Beñat Barberena dira, Arrasateko Saskibaloitako bi harribitxi. Bi jokalaririk kadete mailako Euskadiko Txapelketa jokatu berri dute Gipuzkoako selekzioarekin, eta txapelkun izan dira. Joan den asteburu luzean jokatu zuten txapelketa hori. Zapatuan, Arabako selekzioa hartu zuten mendean, eta astelehenean Bizkaiari irabazi zioten. Gainera, esan behar da gipuzkoarrak erraz nagusitu direla. Bi arrasatearrek ondo jokatzen dakitela erakutsi dute, baina oraindik kadete mailakoak dira, hortaz, presa barik.



## ANIMATUKO DIRA ARRASATEARRAK ESKALADA TXAPELKETAN ESKU HARTZERA?

**D**atorren asteburuan, hilak 13, jokatu dute Iruñean Euskal Herriko Eskalada Txapelketa. Txapelketa hori Rocopolis eskaladagunean egingo dute, eta jakin badakigu arrasatear asko joaten dela bertara eskalada egitera. Ondo ezagutzen dituzte bertako hormak, eta Arrasateko boulderrean ere gazte mordoak ibiltzen

da eskalada egiten. Uda atzean utzita, hemendik aurrera ez da egongo Araotzera joaterik, eta Uarkapen elkartuko dira guztiak. Ez dakigu Euskal Herriko Txapelketa arrasatearrek egongo direnik, baina bertan esku hartzeko animatzen diegu, badakigu-eta txapelketa polita egiteko nahikoa maila daukatela.



## HIRU EGUN MENDI TONTOR BATETIK BESTERA

**J**oan den astean egin zuten AEDko lagunek *Hiru haundixek hiru egunetan* mendi ibilaldia, eta bertan esku hartu dutenek esan digute ederto ibili direla, nahiz eta eguraldiak ez dien askorik lagundu. Lehenengo egunean konturatu barik igo

ziren Aizkorrira, baina batzuei Elgeako mendilerroa luzea egin zitzaion. Hurrengo bi egunetan nekea igarri zuten, baina umore onak ez zuten behera egin. Hori bai, guztiak ez zuten mendi zeharkaldia amaitu.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



## Ezindu psikikoen sexualitatea ulertzeko gida atera du Atzegik

ARRASATE IRRATIA / JON BEREZIBAR

Ezindu psikikoen sexualitatea jorratzen duen gida plazaratu berri du Atzegi elkarteak. Ezinduek sexualitatea bizi izateko eskubidea defendatzen da, eta gurasoei laguntza eskaintzen die.

Ezindu psikiko edo atzeratuen sexualitatea ulertu eta gaiak naturaltasunez jorratzeko, Atzegi elkarteak gida bat plazaratu berri du. Horrekin, mito eta aurreiritziz jositako hainbat gai argitu nahi ditu atzeratuen elkarteak. Gida dagoeneko eskuragarri dago nahi duenarentzat, bai elkartearen bertan bai hezitzaile eta gizarte laguntzaileen bulegoetan.

Sexualitatea guraso eta seme-alaba askorentzat nekez jorratzen den gaia da sarri, eta zer esanik ez alaba edo semeak modu bateko edo besteko ezintasuna duenean, horiek gaixo psikikoak badira, batez ere. Larraitz Arando sexualitate bulegoko ardura-dunak naturaltasunez jokatzeko gomendatzen du kasu hauetan. "Gizon edo emakume diren heinean ezinduek ere sexualitatea bizi izateko gogoia" dute-eta. Hamaika mito eta tabu daude,

Larraitzen arabera; izan ere, "lehen uste zen ezindu psikikoek sexualitaterik ez zutela eta gaur egun askok gehiegizko sexu grina dutela uste dute". Biak hala biak gezurtatzen ditu Larraitzek, eta sexualitatea normaltasunez bizi dutela agertzen du. "Kontua da naturaltasunarekin bizi dutela ezinduek sexua, eta naturaltasun hau, gainera, positiboa da". Hala ere, ezinduen guraso askorentzat gai benetan zaila da oraindik sexualitateren kontua, eta nola heldu jakiteko Atzegi elkarteak gida argitaratu du.

### ESKURAGARRI DAGOENEO

Sexualitatea eta afektibitatea dira gidako zutabe nagusiak. Seme-alabak sexu kontuez galdezka hasten direnean, ez kikiltzeko dei egiten du gidak. Bertan, ezinduek sexua bizi izateko eskubidea defendatzen dute, alderdi guztietan. Atzegiko bazkideei postaz helaraziko zaie gida, baina, hala ere, interesa duenak erraz eskuratu ahal izango du ale bat. Hala ere, tokian tokiko leku estrategikoetan ere utziko dituzte kopiak: liburutegietan, hezitzaileen bulegoetan, ikastetxeetan... Informazio gehiago nahi duenak elkartera bertara jo: 943 42 39 42.

## ELKARRIZKETA

MARIJE APODACA/ HEZITZAILEA

*"Umeek jolasten dabiltzanean gizartea imitatzen dute, rolak ikasiz"*

JON BEREZIBAR

**J**olas eta jostailu ez sexistak izenburupean, Marije Apodaca hezitzaileak gidatutako bi saio antolatu ditu Emakume Txokoak. Jolasen eta sexu bereizkeriaren gainean berba egingo dute guraso eta hezitzaileek.

### Nola jakin genezake jolasa sexista den ala ez?

Kontuan hartu behar da nola hitz egiten den jostailu horiekin, zeintzuk diren landutako jarrerak, eta ez jolas edota jostailua bera, objektu moduan. Sexu banaketa, zelan ez, gertutik aztertu behar da, neskak eta mutilak ez dira-eta berdintzat jolasten, eta, gainera, neskek neskekin eta mutilak mutilekin jolasten jarraitzen dute. Argi dago sexismoak bere horretan jarraitzen duela, eta gure asmoa errealitate hori ikusarazi eta alternatibak eskaintzea da.

### Beraz, zer joko lirerateko gomendagarriak?

Genero rolak jostailuekin bat datozela ados gaude denok, baina jolasten rolak baino aberasgarriagoak diren jarrerak ikas daitezke. Panpinen kasuan, amatasun rolak bereganatzeaz gain, afektibitatea, laguntasuna eta komunikazioa lantzen dira. Beraz, panpinen alderdi positibo horiek aprobetxatu behar dira,



*"Mutilen jolasetan oso gutxitan lantzen da sentimenduen adierazpena, nesken jokoetan ez bezala"*

bai mutilak zein neskek, mutilen jokoetan gutxitan lantzen da-eta sentimenduen adierazpena.

### Zer iritzi duzu Barbie eta antzeko panpinen gainean?

Neskak gero eta gehiago nahi dituzte emakume gazteak imitatzen dituzten panpina horiek, eta gero eta goizago hasten dira

horiek eskatzen. Hala ere, Barbie, adibidez, 60ko hamarkada ezkerro dago salgai. Ez da, hortaz, gaurko kontua. Onuragarria dena baloratu behar da.

### Mezu onuragarriak badute, ala?

Egia da gaztetasunaren estereotipoa saltzen dutela, argala, itxurarengatik arduratuta dagoena eta beste hainbeste. Baina Barbie ere emakume gazte bat da, gizarteari begira eginkizun publikoa betetzen duena. Gainera, astronauta, mediku eta irakasle ere bada, eta emakume bat horiek guztiak izan daitekeela ere erakusten du. Neskak panpinekin jolasten duten bitartean asko hitz egiten dute elkarren artean, eta komunikazioa lantzea tresna oso baliagarria da. Haurrek, jolastean, gizartea imitatzen dute, horrela ikasten dituzte rolak.

### Honetaz gain, umeek gero eta goizago uzten diote jolasteari, ezta?

Gero eta denbora laburragoa uzten diegu-eta jolasteko. Ikastorduetatik kanpoko orduak gutxi behera planifikatzen dizkiegu neska-mutikoei, ingeles eta bestelako klaseekin. Askok uste du ingelesa ikastea oso garrantzitsua dela, baina benetan ezinbestekoena umea pertsona moduan arlo guztietan garatzea da, eta hori jolastean bitartez lortzen da. Jolasa ezinbestekoa da haurraren garapenean.

*Gizon eta emakume diren heinean sexualitatearekiko interesa daukate ezindu psikikoek*

*Gidak ezinduek sexua alderdi guztietan gozatzeko daukaten eskubidea defendatzen du*

## Industria Museoaren eta Musika Etxearen idazketa lanak esleituta

J.B.

Zerrajera zaharreko erlojuaren eraikinean Musika Etxea eta Industria Museoa eraikiko dituzte. Gobernu Batzarra proiektua egiteko idazketen esleipenak egin zituen, eta biak Kudeatu SLK egingo ditu.

Tokiko Gobernu Batzarra bildu ostean hainbat obra eta proiekturen esleipena egin dute aste honetan. Horien artean daude erlojuaren eraikinean (Zaldibarran) egingo diren proiektuen idazketa lanak. Bi dira eraikin horretan egingo diren proiektuak. Oraindik ere hasierako fasean daude eta lanen esleipena idazketa egin ostean egingo dute.

Beheko solairua Industria Museorako egokituko dute eta bigarrena, ostera, Musika Etxea bertan egiteko diseinatuko dute. Bai museoaren lanak bai Musi-

ka Etxekoak enpresa berak egingo ditu: Kudeatu SLK. Lehen idazketarako 10.800 euroko aurrekontua izango du enpresak eta Musika Etxearen lanerako 11.700 eurokoa.

Aipatzekoa da, halaber, Zerrajera zaharreko eraikin hori Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartu zutela orain dela gutxi, joan den irailean, hain zuzen ere. Honela, Jaurilaritzak bere balioarengatik eraikina babestea erabaki zuen. Zerrajera

zaharreko eraikin gehienak desgertu egin dira dagoeneko, baina erlojuaren eraikin hori multzo osoko enblematikoa da. Izan ere, arkitektura ezaugarriak ez dira bakarrik izan babeserako arazoak, sarrerako eraikina izateagatik ere zentzu berezia dauka-eta, Hain zuzen ere, 1939an eraiki zuten, Luis Astiazaran arkitektoak diseinatuta, eta arkitektura arrazionalistaren osagai garbiak erakusten ditu. Eraiki zen garaian erakusgarri paregabea.

### KALEEN URBANIZAZIOA

Bestalde, Gobernu Batzarrean bertan, Mondragones eta Azoka kaleak berriro urbanizatzeko obrak esleitu zituzten. Construcciones Moyua enpresak egingo du lana, 1.241.766 euroko aurrekontuarekin, eta laster hasiko dira horretan. Epeari dagokionez, sei hilabete izango dituzte.

*Gobernu Batzarrean, Mondragones eta Azoka kaleak urbanizatzeko lanak esleitu zituzten*



### 'Konekta zaitetz' autobusa Seber Altuben

Teknologia berriak ezagutu eta internet erabiltzen ikasteko 'Konekta zaitetz' kanpainako autobusa egon da aste honetan Seberren. Jende ugari gerturatu da hara, gazteak eta nagusiak. Batez ere, azken hauek, nagusienak izan dira kanpainaren helburu garrantzitsuena nahiz eta bertara hurbildutako askok jadanik nabigatzen ondo jakin./J.B.



ZALDIBARARETOFUTBOLA



AITOR LIZARRALDE

Joan den urtean Mondrak Zarautzen kontra jokatu aurretik infantil mailako gaztetxoekin atera zuten argazkia.

# FUTBOLA

## Hiru puntura dagoen Zarautzi harrapatzeko aukera, bihar, 15:45ean

Zestoan irabazi eta gero, Mondrak zazpigarren postuan dagoen Zarautzen bisita izango du

XABIER URZELAI

Bada garaia Mondrak sailkapenean gora egiteko, eta joan den astean egin zuten hori lortzeko pauso bat. Zestoan irabazteak indarra eman dio Mondrari; ea, bada, lasaiago jokatzeko beharrezkoa den konfiantza hartzen duten.

Bihar (15:45ean, Atxabalpen) Mondrak Zarautz taldearen bisita izango du. Zarautzarrek Mondrak baino hiru puntu gehiago dituzte, baina sailkapenean bost talde daude tartean: zazpigarren postuan dago Zarautz, eta

hamahirugarrena da Mondra. Arrasateko taldeko entrenatzaile Josu Zubiak eman digu Zarauzko taldearen berri: "Taldea veteranoa da, joan den urteko hamaikakoari eutsi diote, eta hainbat fitxaketa egin dituzte. Ez dute gol askorik egiten, baina eurei ere gol gutxi egiten dizkiete. Argi dago kontrario gogorra izango dela".

### LASAIAGO JOKATZEKO BEHARRA

Mondrak orain duen helburua da azkeneko postuak lehenbailehen atzean utzi eta gora egitea: "Ea lehenbailehen gora egiten dugun. Ondo jokatzeko lasaitasuna behar

dugu, baina atzeko postuetan dagoenak ezin du lasai jokatu; horregatik da garrantzitsua biharko norgehiagoka irabaztea. Joan den asteko garaipena garrantzitsua izan da, partiduak irabazi ezinka genbiltzan-eta". Mondrak orain arte baino gorago egon beharko luke, baina non zehazki?: "Ez dakit sailkapenean zein den Mondraren lekua. Bergarak azkeneko postuan egon beharko luke? Preferente maila oso parekatua da, eta gaitza da esatea talde bakoitzak non egon beharko zukeen. Argi daukadana da Mondrak gorago egoteko taldea daukala".

### SASKIBALOIA

#### Bigarren garaipenak ezin du luzaroago itxaron

Mugarri Alkesari min handia egin dio joan den asteko porrotak, etxean galtzeaz gain, taldeak itxura makala erakutsi zuen-eta. Arrasateko taldea azkena da sailkapenean, eta oraingo asteburuan Zurutuaren mutilek Zallako Bidegintza taldearen kontra jokatu dute. Bizkaitarrak zazpigarren postuan daude, Mugarri Alkesak baino bi partidu gehiago irabazita. Arrasatek bakar irabazi du, eta bigarren garaipenak ezin du luzaroago itxaron. Ea min hartutako jokalariek lehenbailehen errekuperatzen diren.

### ESKUBALOIA

#### Urola ez da joan den urteko talde sendoa

Oraingo asteburuan AGR Arrasate Eskubaloia Taldeak joan den denboraldiko Liga Txapelketako irabazlearen kontra jokatu du, Urolaren kontra, hain zuzen. Gainera, Zumarragan izango da norgehiagoka hori. Aurrekari horiekin, badirudi denboraldiko kontrario gogorrenetako baten kontra jokatu dutela Andoni Arandoren mutilek, baina errealitatea bestelakoa da. Urolak ez du joan den urteko talde bera, jokalariek garrantzitsuenek taldea utzi dute, eta gazte mordoak dituzte. Azkenak dira sailkapenean.

### ERRUGBIA

#### Ondo jokatuta posible da Getxo mendean hartzea

Joan den astean, Atletico San Sebastian taldearen kontra argi geratu zen badirela talde batzuk oso maila onekoak, eta ia ezinezkoa dela haien irabaztea. Baina Arrasatek bihar Garagartzan izango duen kontrarioa, Getxo, ez da talde horietako bat. Baliteke Faduran jokatzeko dutenean Arrasatek aukera txikia izatea norgehiagoka irabazteko, baina Garagartzan bada aukerarik, baldin eta Arrasatekoek ondo jokatzeko badute, noski. Getxoren kontra irabaz dezake Arrasatek denboraldiko lehen norgehiagoka.

### EMAITZAK

Abokajarro - HLB 108	2-5
Irati - Betraye	5-7
Billy & The Cowboys - Manhattan Pippol	6-1
AT Celaya - Dribling	4-2
Goma2 - Ekipo Aldeano	3-2
You Know! - La Kuadrilla	7-2
Torpedo Musakola - Lasagabaster	3-6
Tomahawk - AC Surcos	1-3
Fuxion - Iriztu	1-2
Saukelu Scream	Deskantsua

### PARTIDUAK

#### AZAROAK 6, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: Abokajarro - You Know! La Kuadrilla
12:00: La Kuadrilla - Ekipo Aldeano. Aboka.
13:00: Tomahawk - AT Celaya. Ekipo Alde.
15:00: Torpedo Musa. - Goma2. HLB 108
16:00: Iriztu - HLB 108. Goma2
17:00: Saukelu - Billy & The cowboys. Iriztu
18:00: Lasagabaster - Dribling. Saukelu.

#### AZAROAK 7, DOMEKA. EPAILEAK

12:00: AC Surcos - Manhattan P. Irati Tab.
13:00: Fuxion - Irati Taberna. AC Surcos.
Deskantsua: Betraye.

### SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	4	2
2. HLB 108	4	2
3. Betraye	4	2
4. AC Surcos	4	2
5. Goma2	4	2
6. Irati	2	2
7. La Kuadrilla	2	2
8. Billy & The Cowboys	2	2
9. Lasagabaster	2	2
10. AT Celaya	2	2
11. Saukelu Scream	2	1
12. Iriztu	2	1
13. Torpedo Musakola	1	2
14. Ekipo Aldeano	1	2
15. Fuxion	0	2
16. Tomahawk	0	2
17. Dribling	0	2
18. Abokajarro	0	2
19. Manhattan Pippol	0	2



### KOPAKO JARDUNALDIAK, LASTER

#### AURTEN BI TXAPELKETA JOKATUKO DITUZTE BATERA

Zaldibarko Txapelketa hasi zutenean aurreratu genuen aurten bi txapelketa izango direla. Batetik, 19 taldek osatutako Liga Txapelketa, eta bestetik Kopa Txapelketa. Hala, antolatzaileek gura izan dute berritasun horrekin Zaldibarko jardunaldi emozio handiagoa ematea. Horrek esan gura du Ligako jardunaldiak jokatzearrekin batera antolatzaileek Kopako jardunaldiak ere tartekatuko dituztela. Horrela, jardunaldi batzuk izango dira Ligako partiduendako, eta beste jardunaldi batzuk Kopakoendako.

Liga Txapelketari dagokionez, oraingo asteburuan hirugarren jardunaldia jokatu dute, joan den asteburuan ez zen-eta partidurik izan. Baina jakin ezazue antolatzaileek dagoeneko gertu daukatela Kopa Txapelketa, eta laster jarriko dituztela lehenengo kanporaketako partiduak. Kopan ohikoa den legez, kanporaketa sistema erabiliko dute. Irabazten duenak egingo du aurrera.

### KIROLAGENDA

#### JOKATZEKOAK

<b>FUTBOLA</b>
Mondra - Zarautz Preferentea. Zapatuan. 15:45. Atxabalpen.
Mondra - Aloña Mendi Emakumeak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
Arrasate - Soraluze Gazteak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.
Sto. Lizeoa - Mondra Ohor. Gazt. Zapatuan. 15:30. Berion.
Real Sociedad - Arrasate Kadete Ohor. Zapatuan. 10:30. Zubietan.
Aloña Mendi - Arrasate Infantilak. Domekan. 10:00. Ibarren (Oñati).

#### SASKIBALOIA

Bidegintza Zalla - Mugarri Alkesa Lehen Maila. Zapatuan. 19:00. Zallan.
Easo A - Mugarri Alkesa Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Donostian.

#### ERRUGBIA

Arrasate - Getxo Seniorrak. Zapatuan. 16:15. Garagartzan.
Getxo - Arrasate Kadeteak. Zapatuan. 10:30. Faduran.

Getxo - Arrasate  
Gazteak. Zapatuan. 11:30. Faduran.

#### ESKUBALOIA

Urola - AGR Arrasate Lehen Territ. Zapatuan. 18:15. Zumarragan.
Arrasate - Urola Big. Territ. Domekan. 11:30. Iturripen.
Arrasate - Leizaran Gazteak Neskak. Zapatuan. 16:30. Iturripen.
Gatz Museoa Jakion - Elgoibar Gazteak mutilak. Domekan. 10:00. Iturripen.

#### PILOTA (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)

Arrasate - Urretxu Seniorrak. Zapatuan. 11:00. Uarkapen.
Arrasate - Lazkao Gazteak. Zapatuan. 12:00. Uarkapen.

#### EMAITZAK

<b>ERRUGBIA</b>
Seniorrak. Atletico S.S. - Arrasate ..... 54-8
<b>SASKIBALOIA</b>
Seniorrak. Mugarri Alkesa - Legarcia. .... 74-93



ZINEMA/ Amaia Udal Antzokiko film eskaintza

# Thriller bat, drama bat eta 'Harry Potter'-en azkena

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, bihar, etzi eta etzidamu, *El mito de Bourne* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Thrillerra da, 120 minutu irauten du eta Paul Greengrassen zuzendu du (*Extraña petición, Bloody Sunday...*). Honako film hau *El caso Bourne* lanaren jarraipena da.

Jason Bournek iragana alde batera utzi gura izan du. Horretarako, Marie eta biak uneoro ihesean dabiltza. Zoritxarrez, norbaitek aurkituko ditu, eta Bournek berak dakien moduan, gogor erantzun beharko du.

Honako hauek dira protagonistak: Matt Damon (*Ocean's eleven, Dogma...*), Franka Potente (*Corre Lola, Anatomia...*), Brian Cox (*La última noche, The ring...*), Julia Stiles (*La sonrisa de Mona Lisa...*) eta Karl Urban (*El retorno del Rey...*).

## 'HARRY POTTER'-EN AZKENA

Domekan, gaztetxoek *Harry Potter y el prisionero de Azkabán* filma ikusi ahal izango dute. Saga horren hirugarren lana da abenturazko film hori. 142 minutu irauten du, eta Alfonso Cuaronek



*El caso de Bourne*-ren jarraipena da *El mito de Bourne*.

zuzendu du (*Grandes esperanzas, Y tu mamá también...*).

Harry Potterrek uda senideekin igaro beharko du. Handik ihes egin beharko du, eta hainbat abentura bizi izango ditu.

Datorren egunean, hilaren 11n, *La herencia* filma emango

dute zineklubean. Drama horrek 115 minutu irauten du eta Per Flyk zuzendu du (*Kalder Katrine, Prop & Berta...*). Christofferrek familiaren albora bueltatu beharko du, negozioarekin aurrera egiteko. Horrek hainbat arazo sorraraziko dizkio.

## LABUR

### Gaur, egubakoitza, eta bihar, hainbat kontzertu egingo dituzte gaztetxean

Gaur, egubakoitza, eta bihar, kontzertuak egingo dituzte gaztetxean. Batetik, gaur, Berri Txarrak nafarrak eta Inadaptats kataluniarrek joko dute, 22:30ean. Nafarrak *Libre* biraren azkeneko kontzertuak egiten dabiltza. Metalaren esparruan Euskal Herrian dagoen talde garrantzitsuenetakoa da. Eurekin, Villafranca del Penedesko Inadaptats taldeak joko du. Hardcorea egiten dute, ñabar-dura askorekin, eta Gora Herriak diskoetxearekin lan egin izan dute. Bihar, berriz, punk klasikoa egiten duten Kaotiko eta Falta de Riego taldeek joko dute, 22:30ean.

### Arrasateko Musika Eskola dagoeneko hasi da hainbat musika kontzertu antolatzen

Datorren zapatuan, hilaren 13an, eskolako Big Band taldeak kontzertua egingo du Bergarako Zabalotegi aretoan. 20:00etan izango da. Bergarako Udazken Kulturean esku hartzen duten lehenengo aldia da. Talde horren zuzendaria Zigor Martinez da, eta 20 lagunek osatzen dute. Bluesa, jaza, rocka... egiten dute.

Domekan, hilaren 14an, eskolako txistulariek Aramaioko Gantzaga auzoan emanaldia egingo dute. Elizan izango da, 11:45ean. Juan Karlos Larreategik zuzenduko ditu. Sei txistularik eta perkusio jotzaile batek esku hartuko dute.

### Gazte txokoetako X. urteurrena ospatzeko, musikaren gaineko argazki lehiaketa

Txatxilipurdi elkarteak musikaren gaineko argazki lehiaketa antolatu du, gazte txokoetako X. urteurrena ospatzeko. 12 eta 17 urte bitartekoei zuzenduta dago. Lagun bakoitzak argazki bakarra aurkez dezake, eta tamaina eta formatua askeak izango dira (collagea, muntaia...). Lanak gazte txokoetan aurkeztu beharko dira, eta epea azaroaren 22an bukatuko da. Azaroaren 26an aditza emango dute irabazlea zein den. Irabazleak ikatz argazki dendan bi hilabetez errebeltatuak doan izango ditu.

# haurtxoa

Erdiko kalea 16  
Tel.: 943 79 14 90  
ARRASATE



Jaioberrientzako jantzi eta osagarri guztiak: aulkiak, jostailuak, sehaskak...

Betiko denda kokaleku berrian!





UMEAK/ Jostailuak bildu eta merke-merke eskuratzeko ekimena

# Gehiegizko kontsumoari aurre egiteko, Jostailu Trukaketa Merkatua antolatu dute

KER BARANDIARAN

Txatxilipurdi elkarteak Gabonei begira ekimen interesgarria prestatzen du. Dagoeneko hasi da etxean erabili barik ditugun jostailuak auzoetan eta erdigunean batzen. Horren ondoren, abendu erdian jostailu trukaketa egingo dute gaztetxean.

Orain dela hilabete batzuk, Txatxilipurdiko lantaldea gai jakin baten gaineko hausnarketa egin hasi zen. Asmoa zen Gaboneko gehiegizko kontsumoa ludo-teketan lantzea. Hain zuzen ere, ingurumenarekiko konpromisoa erakusteko, funtsezko kontsumoa txikitzea.

Horretan zebiltzala, jostailuak prezio merkean eskuratzeko ekimena abian jartzea bururatu zitzaion. Eta, bide batez, etxean erabili barik dauden jostailuei erabilpena ematea.

### 3 ETA 12 URTE ARTEKOENDAKO

Horretarako, Txatxilipurdik herritarrei eskatu die etxean erabili barik dituzten jostailuak, ego-

era onean daudenak eta pieza guztiak dituztenak azokako arduradunei eramateko. Jostailu horien truke, txartelak emango dizkiete, azoka jartzen duten egunetan beste jostailu batzuk eskura ditzaten. 3 eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoendako ekimena izango da.

### HASI DIRA JOSTAILUAK BATZEN

Txatxilipurdiko lagunak dagoeneko hasi dira jostailuak batzen. Eguaztenean Musakolako San Antolin eskolan izan ziren. Gaur, egubakoitza, Seber Altuben egongo dira, 18:00etatik 19:30era. Plaza horretan egongo dira azaroko egubakoitz guztietan. Horrez gain, aste barruan auzo-etara joko dute: datorren eguaz-

tenean, hilaren 10ean, Usaetxe plazan (Uribarri) egongo dira; eta 17an, Kontzezinon. Beti ordu-tegi bera izango da.

Abenduaren 17tik 19ra bitartean ipiniko dute azoka gaztetxeke gela baten. Azokaren funtzionamendua honako hau izango da: umeek erabiltzen ez dituzten eta egoera onean dauden jostailuak Txatxilipurdik jarritako puntuetara eramango dituzte. Jostailu bakoitzeko txartel bat emango diete, eta abenduaren erdian beste jostailu bat eskuratu ahal izango dute. Txatxilipurdiko langileek garrantzitsua deritzote jostailuei baliorik ez emateari. Hau da, jostailu bat beste baten truke izango da, eta berdinean izango dio zein jostailu ekarri edo eraman.

Horren harira, Txatxilipurdik esku-orriak banatu ditu herriko ikastetxeetan, ekimenean esku hartzeko gonbita eginez. Horrez gain, azokako antolatzaileek nabarmendu dute interesgarria izango litzatekeela aspaldiko jostailuak jasotzea. Horietako asko sinpleagoak izan arren, oso didaktikoak dira-eta.



Jostailuak umeen garapenerako oinarritzkoak dira.

TXATXILIPURDI

## BEDOÑABE HAURRESKOLA

(0-2 urte bitarteko eskola)

# Matrikulazio epea zabalik!



Noiz: azaroaren 2tik 12ra

Non: Arrasateko Haurreskolan, BEDOÑABEN

(Alfontso VIII kalea, San Andres auzoa)

Tel.: 943 79 76 86





## BOTEPRONTUEN

## Marije Lezeta

## BELAXE ITZULPENAK

XABIER URZELAI

1991n Irakasle Eskolak tradukzio ikastarue ipiñi euen martxan, eta Marije ikastaro horretan ibilli zan. Ikastaruen, baiñe, tradukzioñez gain enpresa bat martxan zelan ipiñi erakutsi eutzien, eta orduen animaute sortu euen hiru lagunen artien Belaxe enpresie.

## Orduetik hona asko aldatu da Belaxe?

Bai, dezente haunditu da. Oin, lau sozio gauz, baiñe zortzi laguneko lañaldie osaketan dogu. Eta horrez gain, beste kolaboratzaillie batzukin be egitten dogu lan.

## Entrebista honen moduen, zeuen enpresiei be mondragueraz ipiñi eutzezen izena.

Bai. Idea mordue geuken eta azkenien Belaxe aukeratu geuen. Berehalaxe gure geuen, baiñe izen moduen ez zan ondo geraketan, eta Belaxekin geratu gitzen.

## Zergaittik Belaxe? Lana agudo egitten dozuelako?

Orduen ez zan horregaittik izen, gero ikesi biher izen dogu lana berehalaxe egitten. Egungo merkaue eskaketan dau lana ondo eta agudo egittie.

## Ze lan egitten dozu zeuk?

Tradukzio txikiñek egitten dot, gehixenbat negoziuen ardurie dauket-eta. Neuk ez dauket liburu bat traduziduteko denporarik, gauza asko dauket-eta esku artien.

## Ze hizkuntzatan egitten dozue lan haundixena?

Lan haundixena euskeraz egitten dogu; gazteleratik euskerara. Horrez gain, baiñe, beste hizkuntza batzuetako tradukzioñuek be egitten dogu, baiñe horreik lanok natibuek egitten daue.

## Eta, zein da lan egitteko hizkuntza gatxena?

Horrei ezin dutzet erantzun. Jentiek esaten dau euskerie gatxa dala, baiñe gatxa da euskeraz ez dakixenandako. Ezaguketan ez dan hizkuntzie da gatxa.

## Zelako testuek traduziduten dozue?

Danetik egitten dogu, baiñe



*"Ez dau hizkuntza gatxik, ondo ezaguketan bada. Ezaguketan ez dan hizkuntzie da gatxa"*

normalien oso testu teknikuek izeten die. Enpresendako lan haundixe egitten dogu, baiñe eskolendako eta udalendako be egitten dogu lan.

## Ze biher da traduktore ona izeteko?

Traduktore batek egin biher dauena da testu batek esan gure dauena entendidu eta beste hizkuntzara ondo traduzidu, esan gure dana kanbixau barik. Eta inportantie da, baitta be, tradukzioñez errextasunez leidu ahal izetie, ulergarrixie izetie.

## Esaten daue traduktore baten atzien oportunitaderik euki ez dauen idazlie dauela.

Ez dakit ba! Geuk *Euskaldumon*

*"Periodikuen idazten dauenek esaten daue idaztie baiño gatxaue dala tradukzioñuek egittie"*

*Egunkaria*-n idazten ibilli dan jentie daukogu, eta hareik esaten daue periodikuen idaztie baiño gatxaue dala tradukzioñuek egittie. Ez dakit horrek erantzun moduen balixo dauen.

## Asiatikuek fuerte datoz: pentsau dozue japonesez edo txinosez ofrezidutie tradukzioñuek?

Oin artien ez jaku holakorik tokau, baiñe batek daki hamendik hamar urtera zetan ibilliko garen!

## Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Ordenadorie, eta horrekin batera Internet eta korreo elektronikue. Ikustekue da horreik hiru gauzok geure lana zenbat errextu dauen.


## NIREBIDAIAHURA / Mikel Castillo

Milanera / 2004ko irailean

Mikelek eta Evak Monakotik Milanera egin behar zuten azkeneko etapa. Milanerako bidea hartu baino lehenago, baina, Mikelek bazuen dertigorrez eginbeharreko gauza bat: "Hiru itzuli egin genizkion Monakoko kaleetan egiten duten 1 Formulako zirkuitu ezagunari; herri barruko errepide arrunta da, baina berezia da bertatik igarotzea". Azkeneko etapen 400 kilometro egin zituzten: "San Siro futbol zelaiaren apartekalekuan elkartu ginen promozio 400 automobilak. Autoak bertan utzi eta hotelera joan ginen. Aurreko jaietan ez geneukan trajea jantzi beharrik, baina azken jai handirako beharrezkoa zen trajea. Castello Sforzescon izan zen jai, eta ikustekoa zen han antolatatu zuten guztia. Kontuan izan gu 800 lagun ginela, eta horrez gain jende ezaguna ere gonbidatu zuten jaira: 1 Formulako pilotu izandako Niki Lauda eta egungo pilotu den David Coulthard; Boris Becker tenislari ohia, Giorgio Armani arropa diseinugilea... Gaztelura sartu eta koktel ederra eman ziguten, eta ondoren Armaniren moda desfilea ikusi genuen. Desfilea amaitutakoan, Cristina Aguilera kontzertua egin zuen. Hark egin du Mercedes auto berriaren iragarkiko abestia, eta kontzertu pribatua eskaini zigun. Gurako nuke jakin zenbat ordaindu zioten!!! Kontzertua amaitutakoan, ondoko karpan afaltzen eman ziguten. Eta ondo afaldutakoan, DJak, dantzariak... Jai gaitzaldean amaitu zen, eta hotelera itzultzeko gama altuko Mercedes autoak zeuden gure zain".

Hurrengo goiza Milanen itzuli txiki bat egiteko aprobeztatu zuten, eta aireportura abiatu ziren: "Bidaia osoan aberatsen moduan izan gintuzten, eta hegazkinean ere lehen mailako eserleketan etorri ginen". Oso esperientzia polita izan zen, gure poltsikotik ezin izango genuke-eta horrelakorik ordaindu. Bidaia osoan hiru euro gastatu nituen; behin, okerreko autobidea hartu eta hori nik ordaindu nuen. Antolatzaillieei esanez gero, hiru euroak itzuliko zizkidaten".

XABIER URZELAI



Argazkian, Eva eta David Coulthard pilotua, azken gaueko jaietan.

*"Bidaia osoan hiru euro besterik ez nuen gastatu"*

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

**AGR**  
García Ripa

**ZAHARBERRITZEAK**  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak

**Egur aroztegia**  
Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**  
Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

arbolapeta

**beinke**

arrasate

ESKORIATZA  
ERRETEGIA

Tfno 714345

**MENDIOLA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA



EZETZASMATU



'NIE HAURTZAROKO ARRASATE' LIBURUA

1998an zabaldu zuten Mondragon hotela. Baina hotela izan aurretik beste zeregin bat betetzen zuten eraikinak. Zer zegoen bertan?

**Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Nuestra Señora de Ujue**  
ardo beltza edo gorria

**6x6,60** 6x1098 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**JON OTXOA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jon!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Piper eta tomate.**

ARRASATEKO HISTORIA

**Auzolana eta Arrasateko auzobideak (I)**

ARRASATEKO BASERRI... / G. ARZELUS

Auzoek, unitate geografikoak izateaz gain, giza paisaia marraztu izan dute harremanak bideratzeko modu bezala. Horietako bat auzolana izan da. Auzoek behar komunei erantzuteko bitartekoa izan da auzolana, hau da, hainbat familia eta etxek konpartitzen zituzten beharrei aurre egiteko. "Lehen batean nekazari bizitza askoz ere hedatuago zegoen Euskal Herrian baina oraindik ere nekazari giroko bizitzak indarrean dirauen tokietan auzo osatzen duten etxe guztiak auzolanean parte hartu beharrean aurkitzen dira. Lan hauetara ez agertzea, gainera, elkartasuna ukatzea bezala ulertzen da eta oso gaizki dago ikusita, garai batean isunekin ordaintzen zelarik (gero isunaren diruarekin ardoa erosten zen).



Bedoñan bertan makina bat auzo bide aurki ditzakegu.

Ohikoena, lanok negu partean egitea zen, basoan lan gutxiago zegoen sasoiaren, alegia. Hala ere, lana larria bazen edozein garaitan antolatu zatekeen eta, era berean, premiazkoak ziren lanek zeukaten lehentasuna. Gainera, zenbait lanetarako auzotarrak euren laguntza pertsonalaz gain, lanabes eta idi-uztarriak eskaini behar zituzten. Ohiturazenez, elkarrekin eginiko lanen ondoren ardorik falta ez zen agapea egiten zen. Leku askotan Udalak edota Biltzarrak ardoz, ogiz eta beste janari batzuekin saritzen zituzten auzolanean parte hartu zutenak.

*Auzolanetako garrantzitsuena bideen garbiketa eta konponketa izaten zen*

Lan hauetako garrantzitsuenetakoak bideen kontserbazio eta hobekuntzak izaten ziren, 'bidegintzea' esaten zitzaion honi, lan horien bitartez bideak zabaldu eta konpondu egiten baitziren. Lan hau beti norabide berean egiten zen, hau da, baseritik hasi eta

auzogune edo elizaraino jarraituz. Honela gune guztiak elkarlotzen zituzten: baserria auzoarekin, bide nagusiekin, gainontzeko baserriekin edota auzoa bere herrilurrekin eta elizarekin batez ere. Lotura hauek izan zitezkeen hainbat bide dituzten eskubideen arrazoia, oro har, elizetarako bideek sortu zituzten-eta gaurdaino gorde diren zorbideak. hala ere, bide orok lau irizpide zituen oinarri moduan: nondik, nora, zelan eta nortzuk. Nondik norako honek, lehen aipatu dugun eta bideak lotzen dituen bi gune nagusiak adierazten dizkigu". Bestalde, bide egite edo bidegintze mota ezberdinak daude, esate baterako, herrikoak eta Kurtzetako bidegintzeak. Lehenak auzo barrutia gainditzen dituztenak lirateke, auzuneak herriarekin lotzen dituzten bideen konponketa eta zabaltzea litzatekeena. "Sendagilea edo Udala izaten zen auzo desberdinei bide horien konponketarako arrazoiak. Kurtzebideei dagokienez, horiek zentzu edo izara sakratua zeukatenak ziren, hain zuzen ere, batez ere hiletan erabiltzen zituztenak. Horrela, etxeko norbait hitzen zenean, kurtzebidea garbitu eta egokitu egiten zen, hileta segizioa handik igaro zedin".



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko azaroaren 5a / 128. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Epailearen aurrean deklaratu ostean, 'Berria' auziaren epaiaren zain dago orain Udala

JON BEREZIBAR

**Berria** egunkariari emandako dirulaguntzak direla-eta, epailearen aurrean erantzun dute udal ordezkariak aste honetan. Momentuz, epaiaren zain dago udalbatza.

Eguaztenean hartu zien deklarazioa Gasteizko Auzitegi Probintzialeko epaileak Mertxe Mondragon alkateari eta Rosa Mondragon Euskara teknikariari. Adierazpenak egin ostean, sententziaren zain dago orain Udala. **Berria** egunkariari 1.500 euroko laguntza emateagatik erantzun behar izan dute Udaleko ordezkariak. Orain dela urtebete erabaki zen dirulaguntza hau osoko bilkura baten, baina salaketaren berri ez dute aurtengo martxora arte izan. Deklarazioaren ostean, datozen egun edo asteetan jakingo da epaiaren berri.

### IAZKO AURREKARIAK

Joandako martxoan jakin zen salaketaren berri. Gainera, Carlos Urquijo Gobernuak ordezkariak hala eskatuta, Estatuko abokatuak ez zuten erabaki hau bakarrik errekurritu Gasteizko Auzitegi Probintzialean. Izan ere,



ARRASATE PRESS

Komunikabideen bitartez jakin zuen Udalak joan den martxoan Estatuko abokatuak errekurtsoa ipini zuela.

dirulaguntzen kontuaz gain, bigarren errekurtso bat ere egon zen Aramaioko Udalaren aurka. Kasu honetan, udalbatzak euskal presoak herriratzeko pankarta baten

garraioaren gaia lantzearen salatu zituen Estatuko abokatuak. Hala ere, azken errekurtso hau bertan behera geratu da forma kontuengatik. **Berria**-ri emanda-

ko laguntzen inguruan, 2003ko azaroaren 22ko osoko bilkuran erabaki zen egunkariaren 1.000 euroko akzio bat erostea eta beste 500 euroekin laguntzea. Guz-

*'Berria'*-ri laguntza moduan emandako 1.500 euroengatik erantzun behar izan zuten

*Udal ordezkariak deklaratu ostean, datozen asteetan jakingo da epaiaren berri*

tira, beraz, 1.500 euroko dirulaguntza eman zion Udalak **Berria**-ri. Albistea martxoan EFE agenziak ateratako teletipo baten bitartez eman zen aditzera. Joandako eguaztenean, ostera, epailearen aurrean erantzun behar izan dute Mertxe Mondragon alkateak eta Rosa Mondragon Euskara teknikariak. Azken honek lekuko moduan erantzun behar izan du. Minutu gutxi iraun zuen haren betebeharren gaineko galdeketak.



### Erretiratuen Eguna sasoi bikainean

Fresko egin arren jende ugari gerturatu zen zapatuan Erretiratuen Eguneko azokara. Aurten Udalak 17 saltoki ipini ditu, baina beste bederatzire etorri ziren Aramaiora. Horien artean, San Martin ikastolako neska-mutikoen Hirugarren Munduarekiko elkartasun postua. Guztira 26, iaz baino gehiago aurten. Azoka antolatzeaz gain, Erretiratuen Eguneko bazkaria izan zen Aramaioko nagusienak omentzeko lekua. Guztira 160 lagun elkartu ziren Aramaioko kiroldegian

### LABUR

#### Astelehenean erabakiko dira zerga igoerak

Datorren urterako zergen inguruko biltzarra berriz ere atzeratzea erabaki du udalbatzak. Aste honetan beharrean datorren astelehenean deituko dute ezohiko batzarra eta bertan erabakiko da datorren urterako zergen igoera zenbatekoa izango den. Atzerapen hori oraindik beharrezko dokumentazioa prestatzen ari direlako gertatu da; izan ere, aurreko jardunaldian igoerarik ez zen egon, eta datorren urterako txosten ekonomikoa ari dira prestatzen.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erizaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

## BARIKUKO ZINEMA

Dagoeneko domeketako film emanaldiak hasi diren arren, aste honetan barikuan bakarrik izango dute hitzordua zinemazaleek. Aste honetako filma *Osama* ezaguna da. Ezaguna izateaz gain makina bat sari irabazitako lana da hau, besteak beste, Cannesko zinema jaialdiko aipamen berezia. Halaber, berezia da ere film honen jatorria, Afganistanen filmatu zuten-eta. Protagonistetako bat den mutikoa, gainera, garai bateko ospea atzean utzita kontzentrazio esparru baten dago gaur egun. Izan ere, istorioak herrialdearen errealitate iskanbilatsua du gai bezala. Bere garaian oso banaketa urria izan zuten zintak, eta barikukoa film berezi hau ikusteko aukera paregabea izango da. Ikasi ahal izateko mutilez mozarrotu behar duen neska baten istorioa dakar *Osama*-k, Talibanen gizaratean girotuta. Kritikari askoren iritiz krudela bezain ederra da filma eta zalantzarik gabe Afganistanen egiten den zinema urriaren erakusgarria.

## Gurasoen topaketak datorren astetik aurrera

JON BEREZIBAR

**Datorren martitzenean hasi eta hilaren amaierara arte gurasoen topaketak antolatu dituzte San Martin ikastolan. Familia eta bikoteen arteko gatazkak aztertuko dituzte lau saiotan, alor bakoitzeko adituekin.**

Foru Aldundiak antolatuta, Gurasoen arteko topaketak hasiko dira datorren astean Aramaion. Topaketen helburua bikote eta familien gaineko prestakuntza eskaintzea izango da, eta interesa duen edozein helduk izango du joateko aukera, azaroaren 9an hasi eta hurrengo hiru martitzenetan, San Martin ikastolan, 18:00etan. Saiok Foru Aldundiak eta Zuiaiko Koadrilako udalek antolatu dituzte eta Gizarte Ongizaterako Foru erakundeak eta Gizarte Prebentziorako Zerbitzu Teknikoak koordinatu.

Saio guztiak, aurreratu bezala, hilabete iraungo dute, astean behin izango dira eta seme-alaba txikiak dituztenek hartzaindegi zerbitzuaren aukera ere izango dute. Bai azken hau zein jardunaldi guztiak doakoak izango

dira, eta San Martin ikastolan egingo dituzte.

Jardunaldietan makina bat gai jorratuko dira, euskaraz, alor askotariko adituekin. Familia eta bikotea ardatzak diren arren, beste gatazka asko izango dituzte hizpide. Gune egokia izango da, hortaz, iritzi zein esperientziak elkartrukatzeko.

Familia gatazken gaineko trebakuntza izango da ardatza eta lau saiotan zehar konponbiderako irizpideak eskainiko dituzte adituek: gatazken identifikazioa, komunikazio teknikak, erru-sentimenduaren kudeaketa, aginpidearen erabilpena, eta abar. Baina alderdirik garrantzitsuena esperientzien elkartrukea izango da, dinamika hori izango dute-eta saio guztiek. Izan ere, hitzaldi sorta tankera baino gehiago, gatazken konponketarako gurasoen iritzi eta esperientziak izango dira protagonista. Hori bai, alor bakoitzeko adituek jorratuko dituzte aipatu gaiak. Foru Aldundiaz gain, Zuiaiko Koadrilako udalak eta guraso eta irakasle elkarrekin antolatu dituzte jardunaldiak.

## LABUR

## Josu Nafarrate irabazle 'Aramaio bere edertasunean' argazki lehiaketan

Josu Nafarrateren *Anboto Orixoletik* lana izan da aurtengo *Aramaio bere edertasunean* argazki lehiaketako irabazlea. Guztira ia 30 argazki aurkeztu dituzte parte-hartzaileek eta gehienak paisaiak izan dira. Joandako hilaren 26an bildu zen epaimahaia eta bertan erabaki ziren bigarren eta hirugarren sariak. Bixente Mondragon eta Itsaso Lopez de Bergara izan dira aukeratuak, hurrenez hurren. Lehen postua lortzeagatik 150 euroko saria jasoko du Josu Nafarratek eta gainontzekoek 100 eta 75 eurokoak. Guztira 24 lan aurkeztu dira eta aipatzekoa da gehienak paisaiak izan dituztela gai modura. Izan ere, hiru sailkatuek paisaia argazkiak aurkeztu dituzte. Epaimahaiari dagokionez, Mertxe Mondragon, Jesus Agirre, Jose Goronaeta, Rosa Mondragon eta Ekaitz Abarrategik osatu dute. Orain, aurkeztutako lanekin Sastiñan erakusketa egingo dute.

## Dagoeneko hasi dira datorren asteko Gantzagako jaiak prestatzen

Urtero moduan azaró erdialdean ospatzen dira Gantzaga auzoko San Millan jaiak, eta dagoeneko hasi dira auzotarrak aurtengoak prestatzen. Datorren barikuan hasita, makina gauza izango dira datorren asteburuan; musikak, hala ere, leku garrantzitsua beteko du egitarauan. Igandean, hilak 14, esate baterako, Arrasate Musika-kaleko txistulariek kontzertua egingo dute. Urtero etortzen dira txistulariak Gantzaga auzoko elizan izango da, 11:45ean. Juan Karlos Larreategi izango dute zuzendari, eta harekin batera sei txistulari eta perkusio jotzaile batek ere hartuko dute parte. Esan bezala, datorren astean ospatuko dira San Millanak, baina datorren zenbakian izango dugu, zehatzago, egitarauaren eta prestatura dauden ekintzen berri.


## BOTEPRONTOAN/ Alvaro Ruiz Otxoa de Eribe · Ekoaraba enpresako langilea

## “Oraindik herritarrak aurreko arduradunen moduetara ohituta daude, denbora behar da”

**E**koaraba enpresak hartu ditu herriko hainbat zerbitzu bere gain, Udalak deitutako lehiaketa irabazi ostean. Zerbitzu horien artean kiroldegiaren kudeaketa dago, eta bertan aurki dezakegu Alvaro. Baina honetaz gain beste hainbat ardura ere betetzen ditu herrian. Murgiera da izatez, eta hainbat urtean Gorbeiaiko parke naturalean ibili da lanean, Aramaioko zerbitzuen kudeaketa egokitzen etorri aurretik.

## Zer lan hartuko ditu bere gain Ekoaraba enpresak?

Zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa da. Aramaion zehazki kiroldegia, udal mezularitza eta argi kontadoreen kudeaketa egiten dugu. Guztira lagun bik egiten dugu lan herrian, Andoni Elexalde eta biok. Nik hamar urte daramat enpresarekin lanean eta makina bat jarduera egiten ditugu: suhiltzaileen trebakuntza fisikoa, nagusientzako gimnasia, igerilekuen kudeaketa, kiroldegiak, eta abar. **Aldaketarik igarriko dute Aramaioarrek berehalakoan?** Kiroldegiaren kudeaketak orain arte egin denaren antzera jarraituko du, baina erabilera-aren alderdi batzuetan aldaketak egingo dira. Izan ere, orain arte



“Kantxetan erreserba dutenek izango dute lehentasuna kiroldegia erabiltzeko orduan”

kiroldegia herriko hurrek jolasteko aterpea izan da, hartzaindegi bat-edo. Nik, honen aurrean, kantxan ordua aurrez hartuta daukatenei emango diet lehentasuna, umeen eragozpenik gabe eta trankil ibil daitezen erreserba eginga dutenak, ordainduta daukate-eta. Gu etorri aurretik kiroldegiak udatik zeraman itxita, baina aldaketak gutxika ikusiko dira, denbora behar da. **Mezularitza ere arduratuko zarete, ezta?**

Bai, hala da. Momentuz ez ditugu herria eta bertako jendea oso ondo ezagutzen, eta seguruenik lan hau izango da gaitzen egingo zaidana. Aurrekoak zeukan lan egiteko modura oso ohituta daude herritarrak, baina harrera ona egin didate. Kontadoreen irakurketari dagokionez, aurreko sasotik nahiko atzeratuta dago kontu

hau, eta bi hilean behin egin beharreko neurketa da izatez.

## Kantxen zozketari dagokionez, aldaketarik bai?

Zozketa hiruhilabetekoa izango da eta lehentasunak herrikoek bertakoek edukiko dute. Kanpotik ere jende asko etortzen da, baina nire ardura lehentasunak errespetatzea izango da.

## Herriarekin elkarlanean ibiltzeko asmorik baduzue?

Bere momentuan zerbitzu hau hartzeko deialdia egin zen eta herritarrek euren proposamenak aurkezteko aukera izan zuten, eta azkenean gure enpresa izan zen aukeratua. Aurreko kudeatzaileetatik inor ere ez zen aurkeztu. Une honetan elkarlanean aukerak aztertzen ari gara. Gure asmoa da eguraldi txarrarekin eta Gabonetako oporretan umeentzako txapelketak antolatzea herriko taldeekin eta pilota elkartarekin.

## Udalarekin harremanak onak dira?

Orain aurrekontuak eta dirulaguntzak erabakitzen daude. Kiroldegian, adibidez, hobekuntza asko egin behar dira, aldageletatik hasi eta teilaturaino; gainera, erabilpenik ematen ez zaien txoko asko daude, eta gauzak ikusteko daude. Oraingoz entzuten digute, baina gai ekonomikoak datoz gero...

“Une honetan herriarekin elkarlanean aukerak aztertzen ari gara”



ERRETRATUZAHARRA

# Aste Santuko prozesio arrakastatsua

Aste honetan Aste Santuko argazki bat ekarri dugu orrialde hauetara. Prozesio handia egiten zuten, eta herri guztia batzen zen hura ikustera. Kontatu digutenez, saioa San Juan Bautista elizan hasten zuten. Kristoren irudia hartu eta San Frantzisko elizara eramaten zuten. San Frantziskon sermoia entzun ondoren, Maalantantz jaisten ziren. Garibaitik buelta eman ondoren, egungo Abaroa parean gelditzen ziren, Kontzezinoko klausurako mojek prozesioa ikus zezaten. Hala gura izaten zuten David Esnal parrokoak eta baita hura ordezkatu zuen Jose Luis Inarrak ere bai. Horren ostean, San Juan Bautista elizan azkeneko funtzioa egiten zuten.

Prozesioan bi irudi sakratu eramaten zituzten: Hilobi Santua eta Andre Mari Doloreetako. Mutilek eraman behar izaten zituzten, eta horretarako lehia egoten zen. Hilobi Santua eramaten zuen lagun bakoitzak 100 pezeta ordaindu behar izaten zituen, eta ezkongabeak izan behar zuten.



Prozesioan herriko agintariak joaten ziren: alkatea, zinegotziak, parrokoa, guardia zibilak... Herriko bandak Chopin-en hileta-martxa jotzen zuten. Bitxikeria moduan, guardia zibilek eskopetak beherantz begira

eramaten zituzten eta hiru adarrekoa beharrez, kaskoa janzten zuten.


Jende artean, Txumeta-ren egunkari kioskoa ikusten da, eta baita Juanitaren gasolindegia muturretako bat ere.

**Argazkia:** Jose Luis Urizar.  
**Informazioa:** Agustin Azkoaga, David Artzamendi, Pedro Zumelaga eta Jose Ramon Arantzabal.  
**Urtea:** 1941eko Aste Santua.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Taxisten zerbitzua saturatuta

Orain dela hamar urte Arrasateko taxistak albiste izan ziren. Udalak taxi lizentzia bat lehiaketa publikoan eskaini gura zuen, eta taxistek protesta egin zuten, euren esanetan neurri horrek zerbitzua saturatu egingo zelako. Garai hartan hamar lizentzia zeuden, eta kanpotik ere taxista asko etortzen ziren, batez ere kooperatibarendako lan egitera.



≈ 1994 Nahiz eta hamar lizentzia egon, taxistek zioten Olarteko taxi geltokian behin baino gehiagotan hamabi lagun elkartzen zirela.



2004 Garai hartan Olarte kalean zegoen taxi geltokia. Kale hori oinezkoendako egin zutenean Garibaira joan ziren taxistak.

**Aretz**

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABAleta

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta paellak eramateko



**CARMEN**  
Ile apaindegia

Berriro ere larunbatetan irekita  
09:00etatik  
14:00etara

Astehenetik ostiralera  
09:30etik 18:00etara

Ferrerias kalea 50  
Arrasate  
Tel.: 943 79 03 63


**ad Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE





**Mediterraneoan  
zeharreko  
itsas-bidaia  
zoragarria  
irabazi nahi?**

Egin zaitez *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun, eta Mediterraneoan zeharreko bi lagunendako itsas-bidaiaren zozketan parte hartu ahal izango duzu.

**Ez galdu aukera. Harpidetu zaitez!**

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera,  
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Laguntzailea:

**VIAJES IBERIA**



Beste bost  
arrazoi edukitzeko:

Segurtasuna,  
segurtasuna,  
segurtasuna,  
segurtasuna,  
segurtasuna.



Opel. Ideia berriak. Auto hobak.



Opel Astra berria. Segurtasun handiena. EuroNCAP, 5 izar.



Opel Astra berriak EuroNCAP 5 izar lortu ditu eta goreneko puntuazioa ondorengoetan: alboko eta aurretiko inpaktua txoke proban eta umeei babesa Sedan trinko kategorian. SAFETEC sistema berritzaileak segurtasun aktiboa konbinatzen du, eta hau guztia du barne: IDSplus xasisa, faro moldakorrak, aurretiko aire-zakuak, segurtasun pasiboan berriz: aurretiko aire-zakuak, gortina aire-zakuak eta alboko aire-zaku handiagoak. Astra autoaren inguruan informazio gehiago nahi baduzu, bisita ezazu gertuen daukazun Opel banatzailea edo deitu 902 20 05 90 telefonora edo sartu gure webgunera: [www.opel.es](http://www.opel.es)

Astra gama: kontsumoa (l/100 km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO<sub>2</sub> emisioa (g/km) 132tik 223ra.

# Giauto

San Andres 10 D. Tel: 943 77 30 10

ARRASATE